



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza. Tfonoa.: 313030 IGELDO

NEGUA

Neguko lehen orri informatibo hau zabaldu nahiko genuke Lezkarri Abesbatzari barkamena eskatuz. Ale bakoitzean esaten dugu Herri Kontseiluko aktetan bildutakotik edaten duela Orri Informatiboak, eta ale bakoitzean animatzen ditugu herritarrak haien iritzi, balorazio ala dena delakoak idaztera. Ez dugu erantzunik jasotzen ordea. Bada, Leskarri Abesbatzak duela hilabete batzuk gure animoei erantzun eta testutxo bat bidali ziguten argazki eta guzti. Itsas Aurre kultur etxean utzi zuten, guk eskatu bezala. Guztia ongi egin zuten, baina artikulurik ez da azaldu Orri Informatiboan gaur arte. Sentitzen dugu. Transmisio arazo bat medio, orain arte ez dugu zuen artikularen berri izan. Ez dakigu zer pasa den: haizeak eraman ote zuen (buzoia bezalaxe), magia beltzak eragin ote duen, ala Leskarri Abesbatzak fan sutsu bat ote duen. Gauza da orain arte ez dugula guk artikulua horren berri izan. Jaso bezain laster sartu dugu Orrian. Lerro batzuk beherako irakurri dezakezue haiek idatzitakoa. Hemendik, eskerrak eman nahi diegu, eta honek ez ditzala desanimatu artikulua gehiago idaztera!

Lezkarrikoak ez dira oraingoan idaztera animatu diren bakarrak; segi horrela!

Jendeari interesgarri egiten omen zaio eta, diru-kontu dezente doakizue ale honetan.

Seguidamente se presentan los balances de algunos de los actos celebrados en los últimos meses.

SAN ISIDRO FESTAKO BALORAZIOA

Jende dezente hurbildu zen eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Ondorengoak

dira egun hartako diru sarrera eta irteerak. Kajan geratzen dena hurrengo urteko San Isidro festa antolatzeko da.

sarrerak (eurotan)		irteerak (eurotan)	
lehengo urteko dirua	264	dema	240
zozketa	300	mariskada	70
Herri Kontseiluak emana	180	aizkolariak	30
GUZTIRA	744	inprenta	65
		GUZTIRA	405

Kajan dagoena, guztira: 339€



FESTETAKO TABERNAKO DIRU-KONTUAK

15795€ jaso zenez, eta 5419.31€ gastatu direnez, irabaziak ondokoak izan ziren: 10375.69

Aurreko urtetakoa baino zenbaki handiagoa atera da aurten; seguru norbait konturatu dena. Ez da irabaziak handiagoak izan direla, baizik eta,

gastuak txikiagoak izan direla, edari asko Eskola

Txikien Jaietatik utzitakoak izan zirelako.

UDAZKENEKO JAI EGUNA



sarrerak (eurotan)		irteerak (eurotan)	
Taloa	170	Umeen tailerra	28
Herri Kontseilua	860	Sukaldaritza tailerra	200
Laguntza (propina)	50	Hitzaldia	60
Sukaldaritza	17	Inpresoak	240
Zozketa	500	Bazkaria	2234
Puruak	21	Gosaria	103
Bazkaria T.8 16	128	Bertsolariak	100
Bazkaria T. 56 21..	1176	Bastoiak	60
Kutxa	150	Farias	46
?	60	Toalla	10
GUZTIRA	3132	Ogia	15
		Drogeria, etabar	36
		GUZTIRA	3132

Sukaldaritza tailerra, umeena, perretxiko-biltzea, azoka, bazkaria, taloak... horiek guztiak eta hitzaldi bat izan ziren aste hartan eta azken honi buruz, hain zuzen, zerbait idatzi digu hitzaldia entzuten egon zen batek:

Urriaren 17an, ostiralez, egin genuen hitz-ordua Itsas Aurren “**Nekazaritzaren bilakaera eta nekazaritza ekologikoa**” izenburutzat zuen hitzaldia entzuteko. Garaiz iritsi zen **Aitor Aranburu EHNEko**

kide eta saio hartako buru eta herritarrak, betiko puntualtasunari eskasari tinko, pixkanaka elkartzuz joan ginen dozena bat laguneko taldea osatuz.

Borobilean esertzea proposatu zuen Aitorrek eta honela baserritar eta kaletar gertu antzera sentitzeko aukera izan genuen. Argi azaldu zigun hitzezko eta ekintzezkoa den baserritar gazte honek zein izan den nekazaritzaren garrantzia eta honek emandako aldaketa azken urteetan. Nekazaritzaren egoerari, egungo produktuen kalitateari eta bestelakoen inguruko zalantza eta iritzi desberdinei bide emateko aukera zabaltzen zuen plaza txiki hartan, azalpen teorikoen ondoren, izan genuen eztabaida eta solasaldirako tartea.

Ikasi, zenbait gauza ikasi genuela ezin ukatu baina hausnarketarako tarte handia eskaini zigun batez ere egun hartako bilerak. Izan ere, ekologiko, biologiko edota organiko izen haundien azpian, errespetuzko nekazaritza, kontsumo eta zaintza bat aurkitu genituen, ez gehiago eta ez gutxiago (ez da gutxi hala ere!). Atzokoak markatu baitzuen gaurkoa eta gaurkoak bideratuko baitu biharkoa, garaiz gabiltza oraindik ere bidea zuzentzeko. Asmorik falta ez zela ikusi zen behintzat ostiral hartan!

ESKOLA ZAHARRA

Eskola berria eraikita, zaharrarekin zer egin eztabaida dago oraindik. Hil honen 19an bilera bat egingo dute Igeldoko elkarte guztiek eta, ondoren, Donostiako udaletxean aurkezteko asmoa dute erabakitakoa.

SENTENTZIAK

Aurreko aleetan eman izan dugu hainbat eraikuntzaren baimenen gora-beheren berri. Arritxulo bideko, Agitiko, bentaseko bideko eta Maddiolako sententziak batera hasi ziren. Lehen hiru horien sententziak Herri Kontseiluaren aldekoak izan ziren eta errekurrituta daudenez, epaiketen bidean jarraitzen dute. Azkenaren sententzia atera da, eta hori Maddiolako aldekoa izan da. Ados ez eta, Herri Kontseiluak prozesu berria zabaldu nahi du, sententzia

prozeduran izandako akats batean oinarritutakoa dela pentsatzen dutelako.

LEZKARRI ABESBATZA

Ondoren doakizue Lezkarrikoek helarazi diguten artikulutxoa. Ahalko balute abestuz egingo lukete, seguru, baina oraingoan idatziz kontatu digute nola hasi ziren, zertan aritzen eta arituko diren.

Hace tres años comenzando el otoño, nos reuníamos unas cuantas personas de Igeldo para cantar, con la ilusión de formar un coro, por iniciativa de Joxe Dorronsoro. Nuestro primer reto fue empezar a montar unas cuantas obras del cancionero tradicional de Euskal Herria, para tener un repertorio con el que pudiéramos presentarnos en público.



Cuando llegó la primavera, nos presentamos en el frontón de Igeldo, dentro del programa que organiza Musikarte por esas fechas, con nuestras primeras cuatro canciones.

La noche vieja de aquel año salimos a cantar villancicos.

El año pasado fue importante para nosotros. Tras muchos meses de duro trabajo, dimos un salto

cualitativo y debutamos en la Ermita de Sta. Cruz de Andoain, compartiendo concierto con la coral del pueblo. Ese mismo mes, en Igeldo hicimos una especie de romería cantando por todos los bares de Igeldo, para darnos a conocer. En navidades realizamos algo parecido cantando villancicos, cerrando el acto del recibimiento a Olentzero.

Este año el 14 de Mayo, ofrecimos un concierto en la iglesia de S. Pedro de

Igeldo, obteniendo excelentes críticas por parte del público y prensa especializada.

¡Lástima que la mayoría de los asistentes eran de fuera de Igeldo! Tal vez una mala coordinación impidió que la información llegara a todos los rincones de nuestro pueblo.

Durante este año también hemos hecho acto de presencia cantando en algunos funerales. Con respecto a esto último quisiéramos aclarar, que nosotros vamos e iremos a cantar a los que buenamente podamos. En esto influyen los días en que se celebran, el horario y la disponibilidad de los componentes de la coral. Hay a veces cantidad de factores externos, que nos impide juntarnos. Y queremos subrayarlo y que quede bien claro, para que nadie se sienta agraviado, si a algunos funerales no podemos acudir.

Este año nuestro reto es seguir ensayando para ampliar nuestro repertorio y ofrecer una muestra de nuestro trabajo, tanto en Igeldo como en otros lugares de Euskal Herria.

LEZKARRI

GABONAK

Urtero bezala, aurten ere Olentzero aterako da Igeldoarrei kantu egitera. Harekin batera, eta KIXMIkoekin kantatu nahi duenak hobe du lehenago entseiatu, nahiz eta horren premiarik ez duela pentsatu. 2. entseiua abenduaren 22an da, arratsaldeko 5etan. Ondoren Olentzerori berari gutuna idatziko zaio guztion artean.

Eskean ateratzeko, berriz: 24an:14:30etan herriko plazan.

31ean:14:30etan herriko plazan.

Puntual azaltzeko eskatzea alperrik da, ezta? Animo!

Eskean atera diren hurrekin merendola egin ohi da. Aurtengoa urtarrilaren 7an izango da, printzipioz arratsaldeko 5etan.

Eskean atera diren gazte eta helduek ere, badute tripa betetzeko aukera. Errege egunean afaria egingo da.

LUDETEKA

KIXMI haur kultur taldeak ludotekaren aurkezpena egingo du herriaren aurrean. Horri buruz gauza gehiago jakin nahi duenak azaldu behar du Itsas Aurrera abenduaren 27an. Aurkezpena 17:00tik 19:00ra izango da.

IKASTAROAK

Aurten hasi eta hurrengo urtean zehar Igeldon izango ditugun ikastaroen berri daukazue ondoren.

IKASTAROA	ASTEKO EGUNA	NORI ZUZENDUTA
aerobika	astelehena, asteazkena	gazte zein heldu
sabel-dantza	osteguna	haurrak
antzerkia	osteguna	haurrak
ingeleza	asteartea	Haurrak*

Musika Eskola: ikasturte osoan zehar musika eskola martxan dago. Bertan ikasi daitezke pianoa, trikia, gitarra eta musika-tailerra.

Quien esté interesado en participar en los cursos que se organizan, debe de dirigirse a Musikarte, en la casa de kultura, que está en la plaza. Se puede hacer por teléfono, llamando al 943 313030.

* Gazte zein helduentzat martxan jartzeko asmoa dago. Interesik izanez gero Kultur Etxera deitu: 943313030



